

# ERDITZE GOIZTIARRAREN MEHATXUA



## ZER DA?

Erditze goiztiarraren mehatxua, prozesu kliniko sintomatikoa da non, tratamendurik gabe edo tratamenduak huts egitearen ondorioz, erditze prozesua hasten den, bertiere haurdunaldiko 22. astea eta 37. astea bitartean

## ZERGATIK DA GARRANTZITSUA?

Mundu mailako estatistikek urtero 15 milioi erditze goiztiar gertatzen direla adierazten dute.

Erditze goiztiarren prebalentzia % 7-10 da eta horrek heriotza perinatalen % 65 eta jaioberrien heriotzen % 37 eragiten du.

## ARRISKU FAKTOREAK

Amarekin erlazionatutakoa: Preklampsia, korioamniotisa, tabakismoa, gehiegizko pisua, erditze goiztiarraren aurrekariak edo abortu aurrekariak izatea, diabetes, gaixotasun kardiobaskularrak, adina (<20 edo >35 urte), estresa eta depresio, gernu infekzioak, sexu bidezko gaixotasunak.

Umeki/karenarekin erlazionatutako arrisku faktoreak: Umeki malformazioak, umekiaren heriotza, haurdunaldi anizkoitza.

Ingurune/gizartearekin erlazionatutako arrisku faktoreak: Maila sozioekonomiko, familia erlazioak, ingurune afektiboa, egonkortasun emozionala, amaren egokitze gaitasuna, jaioaurreko zaintza

## ZER EGIN DEZAKEZU ZUK?

Arrisku faktoreak mugatu (tabakoa, gehiegizko pisua, estresa...)

Prebentzio modu egokiena jaioaurreko asistentzi erregularra da. Haurdun gelditu aurretik edo haurdun gelditu ondoren, erizainaren kontsultara joan.


Edozein zalantzaren aurrean erizainari galdetu.

Elikadura egokia mantendu.

## NABARITU DITZAKEZUN ZEINU ETA SINTOMAK....

Eduki ditzakezun sintoma eta zeinuak hauek dira: gerrialdeko presioa edota mina, abdomeneko eta bizkarreko mina, indigestioa, umetoki lepoko mukosaren aldaketa, karranpa menstrualak, gernuarekin erlazionatutako molestiak edota odoljarioak.

Batzuetan, erditze goiztiarraren mehatxua, karenaren askatzerekin batera ager daiteke. Horrela denean, likido amniotikoa galtzen duzula nabaritu dezakezu.



## SINTOMAREN BAT NABARITUZ GERO....

Zeinu edo sintomaren bat nabarituz gero, lasaitasuna mantendu.

Kontrakzioak nabaritzen badituzu behatu zenbatero agertzen diren.

Osasun profesionalekin kontaktuan jarri eta beharrezkoa bada ospitalera joan.

Likido amniotikoaren agerpena ikusten baduzu urgentzietara joan.